



**2019KO MAIATZAREN 24AN  
UDALBATZAK EGINDAKO EZ OHIKO  
BILKURAREN AKTA.**

Ozaetan, Barrundiako udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko maiatzaren 24an, 13:15ak direnean, ondoren aipatzen direnak bildu dira lehenengo deialdian, Afro Olabe Martínez de Albeniz Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta Jon Txopitea Zugadi Idazkari Kontuhartzailearen laguntzarekin.

**BERTARATUTAKO KIDEAK**

Lehendakaria: Afro Olabe Martínez de Albeniz jauna.

Ainara Saez de Ocariz Albizu andrea.

Naiara Herrero Ruiz de Viñaspre andrea.

Patxi Xabier Segura Garcia de Albeniz jauna.

Jose Antonio Suso Perez de Arenaza jauna.

Jone Berriozabal Boveda andrea.

Joseba Diez Antxustegi jauna.

Idazkaria: Jon Txopitea Zugadi.

Quorum nahikoa dagoela egiaztatu ondoren, Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilkurari eta Aztergaien Zerrendan agertzen diren gaiak jorratzeari ekin zaio:

**1.- AURRENEKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA:**

**.- 2019KO APIRILAREN 30A.**

Osoko Bilkurak 2019ko apirilaren 30ean egindako batzarraren aktaren zirriborroa

**ACTA DE LA SESIÓN  
EXTRAORDINARIA CELEBRADA  
POR EL AYUNTAMIENTO-PLENO  
EL 24 DE MAYO DE 2019.**

En Ozaeta, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Barrundia, siendo las 13:15 horas del día 24 de mayo de 2019 se reúnen, en primera convocatoria, los miembros que a continuación se indican bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, D. Afro Olabe Martínez de Albeniz, y asistidos del Secretario-Interventor municipal, D. Jon Txopitea Zugadi.

**MIEMBROS ASISTENTES**

Presidente: D. Afro Olabe Martínez de Albeniz.

D<sup>a</sup>. Ainara Saez de Ocariz Albizu.

D<sup>a</sup>. Naiara Herrero Ruiz de Viñaspre.

D. Patxi Xabier Segura Garcia de Albeniz.

D. José Antonio Suso Pérez de Arenaza.

D<sup>a</sup>. Jone Berriozabal Boveda.

D. Joseba Diez Antxustegi.

Secretario: Jon Txopitea Zugadi.

Comprobada la existencia de quórum suficiente al efecto el Sr. Presidente declara abierta la sesión, procediéndose al análisis de cada uno de los puntos que integran el Orden del Día:

**1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR:**

**.- 30 DE ABRIL DE 2019.**

Se presenta el borrador del acta de la sesión celebrada por el Ayuntamiento-



aurkezten da.

Udalbatzak akta aho batez onartzen du.

## 2.- 2018KO KONTU OROKORRA.

**IKUSIRIK:** Kontuen Batzorde Bereziak, 2019ko apirilaren 08ko dataz, 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorraren aldeko erizpena eman zuen.

**GERTUA IZANIK:** Agiri hori hamabost lan-egunetako epean jendaurreratu zen, beti ere Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo biharamunetik hasita (2019ko apirilaren 17ko 47. zenbakiduna).

**GERTUA IZANIK:** Agiria jendaurreratu zen epean ez zen inolako erreklamaziorik edo behaketarik aurkeztu.

**KONTUAN HARTUZ:** 2/2004 Foru Arauak, otsailaren 9koa, Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, bere 62 artikulua xedatutakoaren arabera, toki erakundeek, kontabilitate-ekitaldia amaitutakoan, Kontu Orokorra egin behar dute; bertan ekonomiaren, finantzen, ondarearen eta aurrekontuaren arloetan egindako kudeaketan berri agertu behar dute. Osagai hauek izan behar ditu:

- a) Egoeraren balantzea.
- b) Galera eta Irabazien Kontua.
- c) Memoria; honek atal hauek izan behar ditu:
  1. Finantzaketa-taula.
  2. Zorraren egoera.
  3. Informazio-eranskina; hemen aurrekontuaren likidazioa eta Kontabilitate Orokorra erlazionatu behar dira.
- d) Aurrekontuaren likidazioa.

Pleno el 30 de abril de 2019.

El Ayuntamiento-Pleno, por unanimidad, acuerda aprobar el acta.

## 2.- CUENTA GENERAL 2018.

**VISTO:** Que la Comisión Especial de Cuentas, en fecha 8 de abril de 2019, dictaminó favorablemente la Cuenta General correspondiente al ejercicio de 2018.

**RESULTANDO:** Que dicho expediente fue expuesto al público durante el plazo de quince días hábiles, contados a partir del siguiente a la publicación del anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Araba (nº 47 de 17 de abril de 2019).

**RESULTANDO:** Que durante el plazo de exposición pública del expediente no se presentaron reclamaciones o sugerencias.

**CONSIDERANDO:** Que de conformidad con el art. 62 de la Norma Foral 2/2004, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Araba, las Entidades Locales, a la terminación del ejercicio presupuestario, formarán la Cuenta General que pondrá de manifiesto la gestión realizada en los aspectos económico, financiero, patrimonial y presupuestario, y que estará integrada por:

- a) Balance de situación.
- b) Cuenta de Pérdidas y Ganancias.
- c) Memoria, que incluirá:
  1. Cuadro de financiación.
  2. El estado de la deuda.
  3. Un anexo informativo que relacione la Liquidación del Presupuesto con la Contabilidad General.
- d) La liquidación del Presupuesto.



Urteko orriek eranskin hauek izan behar dituzte:

1. Egiaztapenaren balantzea.
2. Kreditu-aldaketen egoera-orria.
3. Balioen egoeraren eta mugimenduen orria.

**KONTUAN HARTUZ:** Apirilaren 2ko, 7/85 Legearen, Toki Jaurpidearen Oinarriak Arauzkotzeko denaren 22.2.e) artikulua arabera, osoko-bilkurari dagozkion eskumenen artean honako hau dago: aurrekontuak onartzea eta aldatzea; eta udalaren eskumeneko gaitan gastuak xedatzea eta kontuak onartzea.

Udalbatzak, aho batez, zera erabakitzen du:

**LEHENA.-** Barrundiako Udalaren 2018 ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra onartzea.

**BIGARRENA.-** Horrela onartutako Kontu Orokorren zuritzea eta osatzen duen dokumentazio osoa bere ikusketarako Herri Kontuen Euskal Epaitegira eta Arabako Foru Aldundiaren Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailera igortzea.

### **3.- LANPOSTUEN ZERRENDA. GARBITZAILEA.**

**AURREKARIAK:** Alkate-Presidenteak, 2019ko martxoaren 14ko 99 zenbakidun ebazpenaren bidez, **CONSULTORES DE GESTION PUBLICA S.L.** enpresari esleitu zion garbitzaile-lanpostua mugagabe ez finko gisa betetzen duen udal-langile publikoak planteaturiko gaien gaineko txosten juridikoaren idazketa; zehazki, gai hauei buruzkoa:

Los anexos a los Estados Anuales serán:

1. Balance de Comprobación.
2. Estado de Modificaciones de créditos.
3. Estado de Situación y Movimiento de Valores.

**CONSIDERANDO:** Que de conformidad con el art. 22.2.e) de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de Bases de Régimen Local, corresponden al Pleno municipal la aprobación y modificación de los presupuestos y la disposición de gastos en materia de su competencia y la aprobación de las cuentas.

El Ayuntamiento-Pleno, por unanimidad, acuerda:

**PRIMERO.-** Aprobar la Cuenta General del Ayuntamiento de Barrundia, correspondiente al ejercicio presupuestario 2018.

**SEGUNDO.-** Rendir la Cuenta General así aprobada y toda la documentación que la integra a la fiscalización del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y al Departamento de Desarrollo Económico y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Araba.

### **3.- RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO. LIMPIADORA.**

**VISTO:** Que el Alcalde-Presidente, mediante resolución nº 99 de 14 de marzo de 2019, adjudicó a la mercantil **CONSULTORES DE GESTION PUBLICA S.L.** la realización de informe jurídico en relación a las cuestiones planteadas por la empleada pública municipal que ocupa el puesto de limpiadora como indefinida no fija, siendo éstas:

- Posibilidad de que le sea aplicado el



.- Aipatu langileari UDALHITZ hitzarmena (Euskadiko toki-erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa 2008-2010) aplikatzeko aukera.

.- Elkarkidetzaren pentsio-sistema osagarriari berriro ekarpenak egiteko aukera, Barrundiako Udalarekin batera.

.- Herri Administrazioan dagoeneko buruturiko hirurtekoen egoera.

EGITATEAK: CONSULTORES DE GESTION PUBLICA S.L. enpresak, 2019ko maiatzaren 21ean (842 zenbakidun sarrera-erregistroa), Barrundiako Udalak helarazitako gaien gaineko behin betiko txostena aurkeztu zuen, zeinetan adierazi zuen:

A.- HITZARMENA APLIKATZEKO AUKERA.

Zerbitzuaren titularra den Administrazioak edo erakunde publikoak kontrataren internalizazioa erabakitzen duenean, itzultze, erreskatatze edo lege ezarritako beste edozein formularen bidez, zalantza sortzen da ba ote dagoen aplikatzea azken enpresa esleipendunaren hitzarmen kolektiboa zerbitzu-ematea internalizatuko duen Administrazio edo erakunde publiko horri.

Bada, titulartasun publikoko enpresa nagusiari edo Administrazioari berari hitzarmen kolektibo bat aplikatu ala ez erabakitzeko gakoa izan daiteke esternalizaturiko jarduera de facto egiten duen ala ez ikustea:

1.- Enpresa publikoak edo Administrazioak esternalizaturiko jarduera de facto egiten duenean.

Jurisprudentiaren arabera, hitzarmenaren aplikazio-eremuaren baitako jarduera benetan egiten duten edo horretan

Convenio UDALHITZ (Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de las Instituciones Locales Vascas 2008-2010).

.- Posibilidad de que vuelva a reanudar sus aportaciones al sistema complementario de pensiones Elkarkidetzaren junto al Ayuntamiento de Barrundia.

.- Situación de los trienios ya perfeccionados en la Administración Pública.

RESULTANDO: Que la mercantil CONSULTORES DE GESTION PUBLICA S.L., en fecha 21 de mayo de 2019 (registro de entrada nº 842), presenta el informe definitivo acerca de las cuestiones planteadas por el Ayuntamiento de Barrundia en el siguiente sentido:

A.- POSIBILIDAD DE APLICACIÓN DEL CONVENIO UDALHITZ.

*En aquellos casos en los que la Administración o entidad pública titular del servicio decide la internalización de la contrata, mediante reversión, rescate o cualquier otra fórmula legalmente establecida, surge el debate acerca de la posibilidad de aplicar el convenio colectivo de la última empresa adjudicataria a la Administración o entidad pública que internaliza la prestación del contrato.*

*En este sentido, la clave de una eventual aplicación de un convenio colectivo a la empresa principal de titularidad pública o a la propia Administración puede estar en el hecho de que ésta realice de facto la actividad externalizada:*

1.- *En el caso de que la empresa pública o la Administración realice de facto la actividad externalizada.*

*De la jurisprudencia se extrae que las empresas de titularidad pública o los entes públicos que realmente efectúen o se dediquen a la actividad que cae en el*



diharduten titulartasun publikoko enpresei edo erakunde publikoei jarduerari dagozkion hitzarmen kolektiboak aplika lekizkieke. Zentzu horretan, Madrilgo Justizia Auzitegi Goreneko Gizarte-arloko Salaren 1017/2012 Epaia aipa genezake, 2012ko abenduaren 4koa: ebatzi zuen Biltzar Jauregi bat ustiatzen zuen udal-erakunde batek jarduten zuela, benetan, ekitaldiak egiteko beharrezko guztian, cateringen kudeaketa eta antolaketa barne; hortaz, aukera eman zuen ostalaritzako hitzarmen kolektiboa aplika zekion.

2.- Enpresa publikoak edo Administrazioak esternalizaturiko jarduera de facto egiten ez duenean.

Auzitegi Goreneko Gizarte-arloko Salak eztabaida ebatzi du: adibidez, bide-garbiketaren sektoreko hitzarmen kolektiboa ezin zaio aplikatu Udalari, zerbitzu-ematea internalizatzen bada. Ondorio horren oinarria Salaren beraren doktrinaren jurisprudentzia da: "Hitzarmen kolektiboak ezin ditu ezarri bere aplikazio-eremuaren barruan ez leudeken enpresek bete beharreko lan-baldintzak". Argudio horren arabera, "Udalak bide-garbiketa bere bitartekoekin egiteko bere gain hartu arren, toki-erakundea ez da bide-garbiketa publikoan diharduen enpresa bat". Horrenbestez, doktrina horren arabera, ez legokio aplikatzea garbiketaren hitzarmen kolektiboa kontrata iraungi ostean garbiketajarduera internalizatu duen Udal bati.

Barrundiako Udalarena bigarren kasua da, ezin baita ondorioztatu, inola ere, Toki Administrazio hori eraikinen garbiketan diharduen enpresa denik, bere jabetzako eraikinetan garbiketa-zerbitzua ematen

ámbito de aplicación de convenio, se les podría llegar a aplicar los convenios colectivos de esa actividad. En este sentido, resulta de interés la Sentencia nº1017/2012 de la Sala de lo Social del Tribunal Superior de Justicia de Madrid de 4 de diciembre de 2012 antes citada, en la que se declaró que la entidad municipal que explotaba un Palacio de Congresos se dedicaba, en realidad, a todo lo necesario para los eventos incluida la gestión y organización de los caterings, de modo que dejó abierta la puerta a la posible aplicación del convenio colectivo de la hostelería.

2.- En el caso de que la empresa pública o la Administración no realice de facto la actividad externalizada.

La Sala de lo Social del Tribunal Supremo ha resuelto el debate en el sentido de que, por ejemplo, el convenio colectivo del sector de la limpieza viaria no puede ser aplicable, en caso de internalización de la prestación del servicio, al Ayuntamiento. Esta conclusión se basa en la jurisprudencia de la propia doctrina de la Sala, según el cual, "el convenio colectivo no puede establecer condiciones de trabajo que hubieran de asumir empresas que no estuvieran incluidas en su ámbito de aplicación". Tomando este argumento, se concluye que "tampoco el hecho de que el Ayuntamiento asuma esta limpieza viaria con sus propios medios convierte a la entidad local en una empresa dedicada a la actividad de limpieza pública viaria". Por tanto, de acuerdo con esta doctrina no cabría aplicar el convenio colectivo de limpieza a un Ayuntamiento que internaliza la actividad de limpieza tras extinguirse la contrata.

En el caso del Ayuntamiento de Barrundia nos encontramos en el segundo supuesto, pues no existe posibilidad alguna de concluir que dicha Administración Local, pese a pasar a prestar el servicio de limpieza de los edificios de su titularidad, se convierta en



badu ere.

Hori dela eta, kontrata iraungi ostean garbiketa internalizatu duen Udalarari ezin lekioket aplikatu Arabako eraikin eta lokaletako garbiketaren hitzarmen kolektiboak. Aplikatu beharreko hitzarmena izango da Udalak bere langileen lan-baldintzak eraentzeko sinatuta duena (Udalhitz).

Halaxe adierazi zuen Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 06/09/2011 Epaian, C-108/10 Auzigaia (Scattolon auzia):

74. Horrenbestez, 77/187 Zuzentarauaren 3. artikuluan 2. atalaren lehenengo paragrafoan aurreikusitako araua, alegia, "Lagapen-hartzaileak hitzarmen kolektiboaren arabera adosturiko lan-baldintzei eutsiko die, hitzarmenak lagatzailearentzat xedatu zituen bezala, harik eta beste hitzarmen kolektibo bat aplikatu behar izan arte", honela interpretatu behar da: lagapen-hartzaileak ahalmena du, besterentzea egiten den egunetik aurrera, bere enpresan indarrean den hitzarmen kolektiboan jasotako lan-baldintzak, ordainsariari dagozkionak barne, ezartzeko.

75. Nahiz eta goian azaldutakoaren arabera 77/187 Zuzentarauak ematen dien jarduteko nolabaiteko askatasuna lagapen-hartzaileari eta gainerako kontratugileei besterenduriko langileen soldataren integrazioa antolatzeko, buruturiko besterentzearen baldintzetara behar bezala egoki dadin, hautaturiko modalitateek aipatu Zuzentarauaren xedearekin bat egin behar dute.

Justizia Auzitegiak behin eta berriz esan bezala, xede hori da, funtsean, eragozte tartean diren langileen egoera are okerragoa besterentze hutsaren ondorioz.

76. Hortaz, besterenduriko langileek

una empresa dedicada a la actividad de limpieza de edificios.

Por tanto, no cabría aplicar el convenio colectivo de limpieza de edificios y locales de Araba al Ayuntamiento que ha internalizado la actividad de limpieza tras cesar la contrata. El convenio de aplicación lo será aquel que tenga suscrito el Ayuntamiento (Udalhitz) para regir las condiciones de empleo de su personal laboral.

En el mismo sentido, el Tribunal de Justicia de la Unión Europea, a través de la Sentencia de 06/09/2011, Asunto C-108/10 (caso Scattolon):

74. Por consiguiente, la regla prevista en el artículo 3, apartado 2, párrafo primero de la Directiva 77/187, según la cual "el cesionario mantendrá las condiciones de trabajo pactadas mediante convenio colectivo, en la misma medida en que este las previó para el cedente, hasta la fecha... de aplicación de otro convenio colectivo", debe entenderse en el sentido de que el cesionario está facultado para aplicar desde la fecha de la transmisión las condiciones de trabajo previstas por el convenio colectivo vigente en su empresa, incluidas las referidas a la retribución.

75. Aunque de lo antes expuesto resulta que la Directiva 77/187 reconoce un margen de actuación que permite al cesionario y a las otras partes contratantes organizar la integración salarial de los trabajadores transferidos de manera que esta se adapte debidamente a las circunstancias de la transmisión realizada, ello no obsta a que las modalidades elegidas deben ser conformes con el objetivo de dicha Directiva.

Como el Tribunal de Justicia ha afirmado reiteradamente, ese objetivo consiste en esencia en impedir que los trabajadores afectados se vean en una situación menos favorable por la mera causa de transmisión.



lagatzailearen enpresan indarrean zen hitzarmen kolektiboaren arabera zituzten lan-baldintzen ordez lagapen-hartzailearen enpresan indarrean direnak berehalako ondorioez ezartzeko ahalmenaren xedea eta ondorioa ezin dira izan langile horiei besterendu aurretik aplikagarriak zitzaizkien lan-baldintzak baino okerragoak, oro har, ezartzea. Bestela, 77/187 Zuzentarauak lortu nahi duen xedea erraz zaputz liteke hitzarmen kolektibo bidez eraenduriko edozein sektoretan, eta horrek Zuzentarauaren eragin baliagarria kaltetuko luke.

Hala, bi erabaki nabarmentzen dira:

.- Behin lagatzailearen hitzarmen kolektiboa iraungita, eta lan-baldintzen kontratualizazioa gorabehera, enpresari lagapen-hartzaileak bere hitzarmen kolektibora egokitzeko molda ditzake.

.- Moldaketa hori berehala egin daiteke, aurreko hitzarmena iraungi arte itxaron gabe, betiere moldaketa egin ostean langilearen egoera, oro har, lehen baino hobea izanez gero.

Beste alde batetik, Auzitegi Nazionalaren 130/2014 epaiak, uztailaren 14koak, eta Auzitegi Gorenaren 2016ko irailaren 12koak, aurrekoa berretsi zuenak, Scattolon doktrina hori estatu-mailan aplikatu dute.

EGITATEAK: Alkate-Presidenteak, 2017ko apirilaren 24ko 112 zenbakidun ebazpenaren bidez, eskaera egin zion Udaltzari lanpostua dagokion zerrendan sortzeko, haren zehaztapenen artean jasota Arabako eraikin eta lokaletako garbiketaren sektoreko Hitzarmen Kolektiboa aplikatuko zaiola.

76. El ejercicio de la facultad de sustituir con efecto inmediato las condiciones de las que disfrutaban los trabajadores transferidos en virtud del convenio colectivo vigente en la empresa del cedente por las previstas en el convenio colectivo vigente en la del cesionario no puede por lo tanto tener por objeto ni como efecto imponer a esos trabajadores condiciones globalmente menos favorables que las aplicables antes de la transmisión. En caso contrario, la realización del objetivo pretendido por la Directiva 77/187 podría ser fácilmente frustrado en cualquier sector regido por convenios colectivos, lo que perjudicaría el efecto útil de esa Directiva”.

Destacan así dos pronunciamientos:

.- Que una vez expirado el convenio colectivo de la cedente, y no obstante la contractualización de las condiciones de trabajo, el empresario cesionario puede modificarlas para adaptarlas a su convenio colectivo.

.- Que dicha modificación puede hacerse de forma inmediata, sin esperar a la expiración del convenio anterior, siempre que la situación del trabajador después de la modificación, globalmente considerada, sea más favorable.

Por su parte, las sentencias de la Audiencia Nacional 130/2014, de 14 de julio, y la del Tribunal Supremo, de 12/09/2016 confirmatoria de la anterior han aplicado esta doctrina Scattolon a nivel interno.

RESULTANDO: Que el Alcalde-Presidente, mediante resolución nº 112 de 24 de abril de 2017, instó al Ayuntamiento-Pleno a crear el puesto de trabajo en la correspondiente relación incluyendo entre sus especificidades que se la aplicaría el Convenio colectivo del sector de limpiezas de edificios y locales de Araba.

RESULTANDO: Que el Ayuntamiento-



EGITATEAK: Udalbatzak, 2018ko ekainaren 27ko saioan, Barrundiako Udaleko lanpostuen zerrenda aldatzea onartu zuen, besteak beste garbitzaileari dagokion lanpostua sortzeko.

KONTUAN HARTUZ: Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenaren 69.1 artikulua xedatutakoaren arabera, Administrazio publikoetako giza baliabideak planifikatuta, aurrerapausoak eman nahi dira, batetik, zerbitzua ematerakoan eraginkortasuna lortzeko, eta, bestetik, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak kudeatzerakoan eraginez jarduteko. Horretarako, langile kopurua egokitu behar da, langileak hobeto banatu, ondo prestatu eta lanbidesustapena eta mugigarritasuna eskaini.

KONTUAN HARTUZ: Uztailaren 6ko, 6/1989 Legearen, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoaren 13. artikulua xedatutakoaren arabera, euskal administrazio publikoek bere barne-egiturak arazoibideratu eta eratu, langilego-beharrak finkatu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztu eta horietako bakoitza sailkatzeko baliabidea dituzte lanpostu-zerrendak.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK: Lanpostuen balorazioa giza baliabideak kudeatzeko tresna bat da, zeinak ahalbidetzen duen erakunde bateko lanpostuen garrantzi erlatibo edo balioa ezartzea.

Udalbatzak, aldeko 4 botorekin (EH BILDU) eta 3 abstentziorekin (EAJ), hauek adostu ditu:

Pleno, en sesión celebrada en fecha 27 de junio de 2018, aprobó la modificación de la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Barrundia para la creación, entre otros, del correspondiente al de limpiador/a.

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el art. 69.1 del Texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del empleado público, la planificación de los recursos humanos en las Administraciones Públicas tendrá como objetivo contribuir a la consecución de la eficacia en la prestación de los servicios y de la eficiencia en la utilización de los recursos económicos disponibles mediante la dimensión adecuada de sus efectivos, su mejor distribución, formación, promoción profesional y movilidad.

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el art. 13 de la Ley 6/1989, de 13 de julio, de la Función Pública Vasca, las relaciones de puestos de trabajo son el instrumento mediante el cual las Administraciones Públicas vascas racionalizan y ordenan sus estructuras internas, determinan sus necesidades de personal, definen los requisitos exigidos para su desempeño y clasifican cada uno de ellos.

CONSIDERANDO: Que la valoración de puestos de trabajo es una técnica de gestión de recursos humanos que permite establecer la importancia relativa o valor de los distintos puestos de trabajo de una organización.

El Ayuntamiento-Pleno, por 4 votos a favor (EH BILDU) y 3 abstenciones (PNV), acuerda:





LEHENA.- Barrundiako Udaleko lanpostuen zerrenda aldatzea, garbitzailearenari dagokionez, herrialde-mailako Garbiketa-hitzarmena barik "Euskadiko toki-erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa 2008-2010 (Udalhitz)" aplikatu dakion.

BIGARRENA.- Garbitzaile-lanpostuaren balorazioa egitea.

HIRUGARRENA.- Itziar Lauzurika Maturanari eta GESOC lan-aholkularitzari ebazpen honen berri ematea.

Eztabaidan, Alkate-Presidenteak adierazi du 2017 ekitaldian zenbait udal-erakinetako garbiketa egiten zuen langilearen egoera "mugagabe ez finkotzat" jo zela; ondorioz, aplikatu beharreko hitzarmen sektoriala Arabako eraikin eta lokaletako garbiketari dagokiona zen. Enpresa-besterentzea gertatu ostean, langile publiko bihurtuak iritzi zion aplikatu beharreko hitzarmen sektoriala "Euskadiko toki-erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa" izan behar zela, bertan jasotako baldintza guztiekin.

Jarraian, Alkate-Presidenteak azaldu du CONSULTORES DE GESTION PUBLICA aholkularitzari txostena eskatu zitzaioela, egoera argitzeko asmoz; hark 2019ko apirilaren 16ko agirian (842 zenbakidun sarrera-erregistroa, 2019ko maiatzaren 21ekoa) agertu zuen bere iritzia: ondo deritzo hitzarmen

PRIMERO.- Modificar la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Barrundia en el correspondiente al de limpiador/a suprimiendo su adscripción al Convenio de limpieza provincial y aplicando, en consecuencia, el "Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de las Instituciones locales vascas 2008-2010 (Udalhitz)".

SEGUNDO.- Proceder a la valoración del puesto de trabajo correspondiente al de limpiador/a.

TERCERO.- Notificar la presente resolución a doña Itziar Lauzurika Maturana y a la asesoría laboral GESOC.

En el debate, toma la palabra el Alcalde-Presidente para señalar que en el ejercicio 2017 se produjo la calificación de la situación de la trabajadora que realizaba las labores de limpieza de ciertos edificios municipales como de "indefinida no fija", en consecuencia, se entendía que el convenio sectorial aplicable sería el de "Limpieza de edificios y locales de Araba"; producida dicha sucesión empresarial, la ya empleada pública entiende que el convenio sectorial aplicable es el "Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de las instituciones locales vascas" en todos sus términos.

Acto seguido, el Alcalde-Presidente añade que, en orden a clarificar dicha situación, se solicita informe a la asesoría CONSULTORES DE GESTION PUBLICA, que evacúa su parecer mediante documento de fecha 16 de abril de 2019 (registro de entrada nº 842 de 21 de mayo de 2019), mostrando su parecer



arautzailea aldatzeari.

Suso zinegotzi jaunak (EAJ) adierazi du bere talde politikoa abstenitu egingo dela eztabaidagai honetan, bi arrazoigatik:

.- Udal-hauteskundeetan atarian gauden honetan, aurretik egon delako astia garbitzaile-lanpostuari dagozkion zalantza juridikoak kudeatzeko.

.- Hitzarmen sektorialaren aldaketa behin betiko epai baten ondorioz egin beharko litzatekeelakoan dagoelako.

Horrez gain, bere ustez, txosten juridikoa Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoak egin behar zuen.

Erantzunean, Alkate-Presidenteak adierazi du txosten juridikoa esleitzea eta idaztea ez dela izan erraza, gaia korapilatsua delako.

#### 4.- IRUÑA-VELEIAKO AUZIA ARGITZEAREN ALDEKO MOZIOA.

IKUSIRIK: Alkate-Udalburuak, 2019ko maiatzaren 17an (837. sarrera-erregistroa), bere eztabaidarako eta bozketarako, honako mozio hau aurkeztu du:

"Arabako Foru Aldundiak, 2008ko udazkenean hartutako erabaki baten bidez, ofizialki faltsutzat jo zituen 2005 eta 2006ko jardunaldietan Iruña-Veleiako aztarnategian aurkitutako "ezohiko grafitoak" (400 inguru), eta indusketa-baimena kentzea erabaki zuen Lurmen S.L. enpresari. Handik gutxira, zigor-espeditantea irekiz, auzibidean jarri zituen empresa horretako hainbat kide eta kolaboratzaile.

favorable a dicho cambio de convenio regulador.

Toma la palabra el edil Suso (PNV) para expresar la intención de su grupo político de abstenerse en el punto a debate, por dos motivos:

.- Por tratarse el punto a debate justo antes de las elecciones locales, cuando ha habido tiempo de gestionar las dudas jurídicas correspondientes al puesto de limpiador/a.

.- Por entender que la modificación del convenio sectorial debiera producirse por sentencia judicial definitiva.

Además entiende que el informe jurídico pudiera haberse elaborado por la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, cuya impronta es manifiesta.

En la contestación, el Alcalde-Presidente señala que la adjudicación y elaboración del informe jurídico no ha sido tarea fácil por la complejidad del tema.

#### 4.- MOCION A FAVOR DEL ESCLARECIMIENTO DEL CONTENCIOSO-IRUÑA-VELEIA.

VISTO: Que el Alcalde-Presidente, en fecha 17 de mayo de 2019 (registro de entrada nº 837), presenta, para su debate y votación, la siguiente moción:

"La Diputación Foral de Álava, en una resolución adoptada en el otoño de 2008, declaró oficialmente falsos los llamados "grafitos excepcionales" (unos 400), hallados en el yacimiento de Iruña-Veleia durante las campañas de 2005 y 2006, y decidió retirar el derecho de excavación a la empresa Lurmen S.L., para posteriormente abrirle expediente sancionador y entablar procedimiento judicial contra varios de sus miembros y colaboradores.



Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU-UPV) irakasleak ia guztiz osaturiko Batzorde Zientifiko Aholkulariaren zenbait txostenetan oinarrituta hartu zuen erabakia Foru erakundeak; piezak faltsuak zirela eta Lurmenen arkeologia jarduna txarra izan zela esaten zuten txostenok. Geroago, 2009 eta 2013 artean, Lurmenen defentsak hogeitabat txosten aurkeztu zituen epaitegian guztiz kontrakoa esaten zutenak, hau da, piezak benetakoak izan daitezkeela eta Lurmenen arkeologia jarduna egokia izan zela. Hainbat naziotakoak dira txostenon egileak eta horietako gehienak izen handiko adituak grafitoetan agertzen diren gaitan.

Auzia bederatzita urtez egon da instrukzio fasean, gure herrian irekita dagoen auzi judicial zaharrena izanik, horrek Eliseo Gil Zubillaga eta Oscar Escribano Sanz auzipetuei ekartzen dien guztiarekin. Azkenik, 2018ko maiatzaren hasieran jaso dute auzipetuek akusazio-idatzia: Eliseo Gilentzat Arabako Foru Aldundiak zazpi urte eta erdiko kartzela zigorra eta 285.000 euroko isuna eskatzen du eta aldi berean Estatuko Fiskaltzak bost urte eta erdiko kartzela eta ia 300.000 euroko isuna. Oscar Escribanorentzat, bost urte eta erdiko kartzela eta antzeko isunak.

Gure ustez, ezin da denbora gehiago egon auzia argitu gabe; batetik, begi-bistako arrazoi humanitarioengatik, eta bestetik, garrantzi ikaragarrikoa delako grafitoak benetakoak ala faltsuak diren jakitea. Eta ez bakarrik euskararen historiarentzat, baita beste ezagutza-arlo askorentzat ere. Badakigu jakin erraza dela egia aurkitzea datazio teknika modernoak erabiliz, ohikoak gaur egungo arkeologian.

Horregatik udalbatza honek, auzia argitzea

El ente foral tomó la decisión basándose en varios informes de la denominada Comisión Científica Asesora, constituida fundamentalmente por profesores de La Universidad del País Vasco (EHU-UPV), que abogaban por la falsedad de los grafitos y la mala práctica arqueológica de Lurmen. Posteriormente, entre 2009 y 2013, la defensa de Lurmen presentó ante el juzgado una veintena de informes que sostienen lo contrario, o sea, que los grafitos pueden ser verdaderos y que la práctica arqueológica de Lurmen ha sido correcta. Los autores de dichos informes son de diferentes nacionalidades, y la mayoría de ellos reconocidos expertos/os en las materias que se reflejan en los grafitos.

El caso ha estado en fase de instrucción durante más de nueve años, siendo la causa judicial abierta más antigua de nuestro país, con lo que ello supone para los encausados Eliseo Gil Zubillaga y Oscar Escribano Sanz. Al fin, a principios de mayo de 2018 éstos han recibido el escrito de acusación: para Eliseo Gil, la Diputación Foral de Álava pide la pena de siete años y medio de cárcel y 285.000 euros de multa, y paralelamente la Fiscalía cinco años y medio de cárcel y casi 300.000 euros de multa. Para Oscar Escribano se piden cinco años y medio de cárcel y multas similares.

Creemos que no se puede dilatar más el esclarecimiento del caso, tanto por evidentes razones humanitarias como por ser de suma importancia conocer si los grafitos son verdaderos o falsos. Y no solo para la historia del euskera, sino también para otras muchas áreas de conocimiento. Sabemos que es fácil llegar a la verdad usando técnicas modernas de datación, habituales hoy en día en arqueología.

Por todo lo anterior, y con la voluntad de esclarecer la cuestión, esta corporación



nahi duenez, ondorengo nartzen du:

.- Bat egitea Iruña-Veleia Argitu ekimenaren bi eskaerekin:

- 1) Piezen lagin bat Arkeometriari adituak diren Europako laborategietan aztertzea. Gure ustez, hiru laborategi ezberdinetan egin beharko lirateke analisiak, kasu berezietako protokolo zorrotzak ezarri.
- 2) Parteekin zerikusirik ez duten arkeologo entzutetsuek indusketa kontrolatuak egin ditzatela Lurmenek grafitoen agerlekutzat seinaturiko lekuen inguruetan.

.- Akordio honen berri Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari ematea".

Aurrenekoa ikusita, Udalbatzak, 4 boto alde (EH BILDU) eta 3 boto aurka (EAJ), zera erabakitzen du:

LEHENA.- Goian aipatutako mozioa onartzea.

BIGARRENA.- Honako erabaki hau honako hauei jakinaraztea:

.- Arabako Foru Aldundia (Euskara, Kultura eta Kirol Saila).

.- Eusko Jaurlaritza (Kultura eta Hizkuntza Politikako Saila).

Eztabaidan, Alkate-Presidenteak esan du al bait lehen argitu beharra dagoela Iruña-Veleia kasuan jazotako guztia: batetik, dagokion epaiketa hasi egin beharko litzateke, aurkikuntza arkeologikoaren nolakotasuna behin betiko argi dadin; bestetik, beharrezkoa litzateke nazioarteko adituek beren txostenak dagokion epaitegiari helarazi

municipal adopta las siguientes decisiones:

.- Unirse a dos peticiones propuestas por la iniciativa Iruña-Veleia Argitu:

- 1) Que laboratorios europeos especializados en Arqueometría analicen una muestra de las piezas. Sugerimos que sean tres laboratorios diferentes, y que se apliquen estrictamente los protocolos al uso para casos extraordinarios.
- 2) Que reconocidos arqueólogos/os, no vinculados a las partes, lleven a cabo excavaciones controladas en lugares próximos a los señalados por Lurmen como puntos de aparición de los grafitos.

.- Notificar esta decisión a la Diputación Foral de Álava y al Gobierno Vasco".

Visto lo anterior, el Ayuntamiento-Pleno, por 4 votos a favor (EH BILDU) y 3 votos en contra (PNV), acuerda:

PRIMERO.- Aprobar la moción arriba meritada.

SEGUNDO.- Notificar la presente resolución a:

.- Diputación Foral de Álava (Departamento de Euskera, Cultura y Deporte).

.- Gobierno Vasco (Departamento de Cultura y Política Lingüística).

En el debate, el Alcalde-Presidente señala la necesidad de esclarecer cuanto antes todo lo acontecido en el caso de Iruña-Veleia, por un lado, se debería celebrar ya el juicio correspondiente para clarificar definitivamente la realidad del hallazgo arqueológico, por otro, sería necesario que expertos internacionales pudieran evacuar sus



ahal izatea. Jarraian, kasuaren atzean dagoen giza drama nabarmendu du, salatuentzat kartzela-zigor oso gorrak eskatu direnez gero.

Segidan, Berriozabal zinegotzi andreak (EAJ) adierazi du bere taldea mozioaren kontra dagoela, epaiketa laster barru hasiko delako eta prozesua izapidetu bitartean izan dutelako aukera beren argudioak defendatzeko txosten eta froga guztiak aurkezteko. Hala, bere ustez, Justiziarri erabateko independentziaz jarduten utzi behar zaio. Amaitzeko, auzia azkar ebaztea espero duela esan du, denbora gehiegi igaro delako jarduketak hasi zirenetik.

#### **5.- 2019KO MAIATZAREN 16KO 210. ALKATETZAREN DEKRETUA BERRESTEA.**

IKUSIRIK Alkate-Udalburuaren 2019ko maiatzaren 16ko 210. erabakia, honenbestez, 2019-2020 ekitaldietarako eraginkortasun energetikoaren inguruan proiektuak garatzeko Arabako Foru Aldundiari dirulaguntza eskatu zaio.

KONTUAN HARTUZ: Toki Jaurpidearen Oinarriak arauzkotzeko Legearen 21.1.k) artikularen arabera, Alkatea da Udalbatzako buru eta eskumen hauek ditu:

.....  
k) Akzio judizialak eta administratiboak baliatzea eta udalaren defentsa egitea bere eskumeneko gaietan, beste organo bati eskuordetzan emandakoak izan arren; larrialdi-kasuetan, osoko

informes ante el juzgado correspondiente; a continuación, subraya el drama humano subyacente en el caso, con unas penas privativas de libertad para los acusados muy fuertes.

Acto seguido, toma la palabra la edil Berriozabal (PNV) para mostrar la postura contraria de su formación a la moción, basándose para ello en que el juicio se celebrará próximamente y durante la instrucción del proceso han tenido oportunidad de presentar todos los informes y pruebas necesarias para defender sus argumentos, en consecuencia, se debe dejar a la justicia que actúe con total independencia; para finalizar, señala que espera una pronta resolución del caso ya que ha pasado demasiado tiempo desde el comienzo de las actuaciones.

#### **5.- RATIFICACION DEL DECRETO DE ALCALDIA Nº 210 DE 16 DE MAYO DE 2019.**

VISTA la resolución de Alcaldía-Presidencia nº 210 de 16 de mayo de 2019, por la que se solicita ayuda económica a la Diputación Foral de Araba para el desarrollo de proyectos de eficiencia energética para los ejercicios 2019-2020.

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el art. 21.1.k) de la Ley reguladora de bases de régimen local, el Alcalde es el Presidente de la Corporación y ostenta las siguientes atribuciones:

.....  
k) El ejercicio de las acciones judiciales y administrativas y la defensa del ayuntamiento en las materias de su competencia, incluso cuando las hubiere delegado en otro



bilkuraren eskumeneko gaietan ere jardun lezake horrela, eta osoko bilkurak hurrengo lehenengo bilkura egiten duenean eman beharko dio alkateak horren berri osokoak berretsi dezan.

Udalbatzak, aho batez, zera erabakitzen du:

LEHENA.- Goian aipatutako Alkate-Udalburuaren erabakia berrestea.

**6.- EUSKAL HERRIKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIAK EMANDAKO 109/2019 EPAIAREN BERRI EMATEA (2016-2017 OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANA).**

AURREKARIAK: EAEko Justizia Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak, 2019ko apirilaren 24an, epaia eman zuen Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiak urriaren 4an emandako 300/2018 epaiaren kontrako apelazio-errekurtsoa ebazteko prozeduran. Epai horrek badu aurrekaria: 724/2017 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, zeinetan Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 29ko 912/2016 akordioa indargabetzeko edo baliogabetzeko egindako errekerimendua isiltasun administratibo negatibo bidez ukatu izana aurkaratu zen.

EGITATEAK: Aipatu 2019/2019 epaiaren arabera, Barrundiako Udalak aurkezturiko apelazio-errekurtsoa onartu eta Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiak urriaren 4an emandako epaia baliogabetu egin da; hortaz, Arabako Foru Aldundiaren akordioa deuseztatuta, onartu da errekurtsogileak 179/2016 Foru Aginduak emandako dirulaguntza

órgano, y, en caso de urgencia, en materias de la competencia del Pleno, en este supuesto dando cuenta al mismo en la primera sesión que celebre para su ratificación.

El Ayuntamiento-Pleno, por unanimidad, acuerda:

PRIMERO.- Ratificar la resolución de Alcaldía-Presidencia arriba meritada.

**6.- DACION DE CUENTAS DE LA SENTENCIA 109/2019 DEL TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DEL PAIS VASCO (PLAN FORAL DE OBRAS Y SERVICIOS 2016-2017).**

VISTO: Que la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en fecha 24 de abril de 2019, dicta sentencia en el recurso de apelación contra la sentencia nº 300/2018, de 4 de octubre, dictada por el Juzgado de lo Contencioso-administrativo número 3 de Gasteiz. Dicha sentencia tiene como antecedente el recurso contencioso-administrativo número 724/2017, en el que se impugna la desestimación por silencio administrativo negativo del requerimiento efectuado para la derogación o anulación del acuerdo 912/2016, de 29 de diciembre, adoptado por el Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Araba.

RESULTANDO: Que de conformidad con dicha sentencia 109/2019, se estima el recurso de apelación presentado por el Ayuntamiento de Barrundia y se revoca la sentencia de fecha 4 de octubre de 2018 del Juzgado de lo Contencioso-administrativo nº 1 de Gasteiz, declarando la nulidad del acuerdo de la Diputación Foral de Araba, y, por tanto, reconociendo el derecho del



jasotzeko eskubidea duela, eta lehen instantziako kostuak demanduari egotzi zaizkio, apelazio-errekurtsoa izapidetu bitartean sorturikoei dagokienez inolako kondena-adierazpenik egin barik.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

### 7.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkate-Udalburuaren honako erabakien berri ematen da:

.- 150 / 222 zenbakiko Dekretuak.

Udalbatza jakitun da.

Aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, 14.15ak direnean bilkurari amaiera eman diogu, eta nik, Idazkariak, horren fede ematen dut.

Alkate-Udalburua/El Alcalde-Presidente

Afro Olabe Mtnéz de Albeniz



recurrente a percibir la subvención concedida por la Orden Foral 179/2016, imponiendo las costas de la primera instancia a la demandada y sin hacer pronunciamiento de condena respecto a las devengadas en el trámite del recurso de apelación.

El Ayuntamiento-Pleno se da por enterado.

### 7.- DACIÓN DE CUENTA DE DECRETOS DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones de Alcaldía siguientes:

.- Decretos números 150 / 222.

El Ayuntamiento-Pleno se da por enterado.

Y no habiendo más asuntos que tratar se levanta la sesión a las 14.15 horas, de lo cual yo, como Secretario, doy fe.-

Idazkaria / El Secretario

Jon Txopitea Zugadi

